EBATZI DU:

*Lehenengoa.–* Gaur, F-222 zenbakiaz, Bilboko (Bizkaia) Deier Behatokia Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

*Bigarrena.–* Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 1. sekzioan inskribatzea, irakaskuntza eta ikerketari buruzko fundazioen sekzioan hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Erregelamendua onartu zuen urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 14. artikuluan agindutakoaz bat etorriz (dekretu hori aplikagarria da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren Xedapen Iragankor Bakarraren indarrez eta EAEko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuan ezarritakoaren babesean).

*Hirugarrena.–* Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, horren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko otsailaren 25a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

RESUELVE:

*Primero.–* Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-222, de la constitución de la denominada Deier Behatokia Fundazioa, de Bilbao (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

*Segundo.–* Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 1.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, relativa a las fundaciones docentes y dedicadas a la investigación, conforme lo dispuesto en el artículo 14 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones del País Vasco (de aplicación de acuerdo con la Disposición transitoria única del Decreto 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, y del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco).

*Tercero.–* Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de febrero de 2008.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

## 2236

AGINDUA, 2008ko martxoaren 25ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena. Honen bidez, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautu zituen 2002ko abenduaren 11ko Aginduan jasotako laguntzetarako deia egiten da urte honetarako.

2002ko abenduaren 11ko Aginduaren bidez arautzen dira Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak gizarteratze-enpresak sortu eta mantentzeko ematen di-

## 2236

ORDEN de 25 de marzo de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se realiza para el presente año la convocatoria de las ayudas previstas en la Orden de 11 de diciembre de 2002, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción.

Mediante la Orden de 11 de diciembre de 2002, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción, publicada en el

tuen laguntzak (2002ko abenduaren 27ko EHAA, 247. zenbakia). Laguntzen xedea enpresa horiei laguntza ematea da, haien ezaugarri eta beharrei egokituta. Horren barruan gizarteratze-enpresak sortzen dituzten entitate sustatzaileentzako eta gizarteratze-enpresentzako diru-laguntzak aurreikusten dira, iraun ahal izan dezaten.

Horrez gain, 2007ko maiatzaren 11ko EHAAn, 90. zenbakikoan, argitaratu zen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2007ko maiatzaren 3ko Agindua, eta horren bidez aldatu zen lehen aipatutako 2002ko abenduaren 11ko Agindua, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen zituena.

Aipatutako 2002ko abenduaren 11ko Aginduko 17. artikuluak ezartzen duenez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak, sailburuaren Aginduaren bidez, urtero egingo da agindu horretan aurreikusitako diru-laguntzen ildoetarako deialdia, eta bertan dagokion aurrekontu-horniduraren eta eskabideak aurkezteko epea zehaztuko dira. Programaren berezitasuna kontuan harturik, epe hori dagokion ekitaldi ekonomiko osoan luzatuko da.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartua) 49.5 artikuluak ezartzen duenez, ekonomia-ekitaldi bakoitzean, Euskal Autonomia Erkidegorako aurrekontu orokorrak indarrean jartzen direnean, diru-laguntzak emateko arauak eguneratu edo berrikusiko dira edo, behar izanez gero, programen diru-laguntzen arauak ezarriko dira, eta, bere garaian indarraldirik zehaztu ez zitzaien diru-laguntzetarako deia egingo da.

Halaber, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 50. artikuluan izandako aldaketa jasotzeko xedearekin —aldaketa hori Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko Azken Xedapenetako seigarrenak eragin du—, debekatu egiten zaie deialdi honetan parte hartzea sexuarengatik egindako diskriminazioa dela-eta administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei, eta Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako legea dela-eta debeku horrekin zigortutakoei, hori guztia dagokion zigorra indarrean dagoen bitartean. Horren ondorioz, laguntzen eskatzaileek aurkeztu behar dituzten agirien artean, debeku horren pean ez egotearen zinpeko aitorpena ere aurkeztu beharko dute.

Horregatik guztiarengatik, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2008ko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 28ko 15/2007 Legea onartuta dagoelarik, eta laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Seguran-

BOPV n.º. 247, de 27 de diciembre de 2002, se regularon las ayudas que el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, puso en práctica para ofrecer a este tipo de empresas unas fórmulas de apoyo adaptadas a sus particulares características y necesidades. En su marco, se prevén subvenciones destinadas a las entidades promotoras para la creación de empresas de inserción y subvenciones dirigidas a las propias empresas de inserción para su sostenimiento.

A su vez, en el BOPV n.º 90, de 11 de mayo de 2007 se publicó la Orden de 3 de mayo de 2007, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se modifica la Orden, antes señalada, de 11 de diciembre de 2002, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción.

El artículo 17 de la citada Orden de 11 de diciembre de 2002 establece que el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, mediante Orden de su Consejero, convocará anualmente las líneas de ayudas previstas en esta Orden, con expresión de la dotación presupuestaria correspondiente y del plazo de presentación de solicitudes, que dada su especificidad se extenderá durante el resto del ejercicio económico de que se trate.

Por otra parte, el artículo 49.5 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, establece que, una vez en vigor los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cada ejercicio económico, se procederá a actualizar, revisar o, en su caso, establecer las normas reguladoras de la concesión de las subvenciones de los programas y a realizar la convocatoria correspondiente de aquéllas que fueron en su momento reguladas con vigencia indefinida.

Por otro lado, y con objeto de recoger la modificación producida en el artículo 50 del texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, modificación producida por la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se incorpora la prohibición de poder concurrir en la presente convocatoria, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, a las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Como consecuencia de ello, se añade entre la documentación que deben aportar los solicitantes de las ayudas la declaración jurada de no estar incurso en tal prohibición.

Por todo ello, habiéndose aprobado la Ley 15/2007, de 28 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008, y en ejercicio de la habilitación prevista en el citado artículo 17 de la Orden de

tza sailburuaren 2002ko abenduaren 11ko Aginduko 17. artikuluan xedatutako gaikuntza erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2002ko abenduaren 11ko Aginduan aurreikusitako laguntzetarako deia egitea 2008. urterako. Aurten eskabideak aurkezteko epea agindu hau indarrean sartzen denean hasiko da, eta 2008ko urriaren 31n amaituko da.

*2. artikulua.–* 2002ko abenduaren 11ko Aginduaren helburua betetzeko erabiltzen diren baliabide ekonomikoei dagokienez, agindu horretako 23. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Helburua betetze aldera, 2008. urterako gehienez 9.355.091 euro baliatuko dira, honela banatuta: 3.855.091 euroko ordainketa-kreditua 2008ko ekitaldirako, 2.350.000 euroko konpromiso-kreditua 2009ko ekitaldirako, 2.350.000 euroko konpromiso-kreditu bat 2010eko ekitaldirako, eta 800.000 euroko konpromiso-kreditua 2011ko ekitaldirako.

*3. artikulua.–* Laguntzak eskuratu eta onartzeko baldintzak aipatutako 2002ko abenduaren 11ko Aginduan, hori aldatzen duen 2007ko maiatzaren 3ko Aginduan, eta agindu honetako xedapen gehigarri bakarrean aurreikusitakoak izango dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoa betez, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu sexuarengatik egindako diskriminazioa dela-eta administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek, ezta Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako legea dela-eta debeku horrekin zigortutakoek ere.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Agindu honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezar diezaiokete interesdunek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabe-

11 de diciembre de 2002, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Convocar, para el año 2008, las ayudas previstas en la Orden de 11 de diciembre de 2002, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción. Para el presente año el plazo de presentación de solicitudes de estas ayudas comenzará a contar desde la fecha en que entre en vigor la presente Orden y se extenderá hasta el 31 de octubre de 2008.

*Artículo 2.–* Por lo que se refiere a los recursos económicos destinados al cumplimiento del objeto de la Orden de 11 de diciembre de 2002, se estará a lo dispuesto en su artículo 23.

A los efectos del cumplimiento de su objeto, se destinará para el año 2008 un total máximo de 9.355.091 euros, distribuido mediante un crédito de pago para el ejercicio 2008 de 3.855.091 euros, un crédito de compromiso para el ejercicio 2009 de 2.350.000 euros, un crédito de compromiso para el ejercicio 2010 de 2.350.000 euros y un crédito de compromiso para el ejercicio 2011 de 800.000 euros.

*Artículo 3.–* Las condiciones para el acceso y la concesión de las mencionadas ayudas serán las previstas en la referida Orden de 11 de diciembre de 2002, en la Orden de 3 de mayo de 2007 que la modifica y la señalada en la Disposición Adicional Única de esta Orden.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En cumplimiento de lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, no podrán concurrir en la presente convocatoria, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el

teko epean, Agindua EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

***Bigarrena.***– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 25a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

***Segunda.***– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de marzo de 2008.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

**2237**

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 7koa, Enplegu eta Prestakuntza zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuko laguntzen onuradunen zerrenda jakinarazten da. Laguntzok 2007ko urtarrilaren 1a eta 2007ko abenduaren 31 bitarteko aldiari dagozkio.

Goian aipatutako dekretuan oinarrituta, emandako diru-laguntzen publizitatea egiteko, honako hau

EBATZI DUT:

Lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuaren babesean 2007ko urtarrilaren 1a eta 2007ko abenduaren 31 bitartean emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Ebazpen honen I. eranskinean ageri da zerrenda, eta bertan honako xehetasun hauek adierazten dira: eskabidearen espediente-zenbakia, onuradunaren izena, eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 7a.

Enplegu eta Prestakuntza zuzendaria,
JESÚS MONREAL ZIA.

**2237**

RESOLUCIÓN de 7 de marzo de 2008, del Director de Empleo y Formación, por la que se hace pública la relación de beneficiarios, de las ayudas previstas en el Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, por el que se articulan las medidas de ayudas al empleo, correspondientes al período comprendido entre el 1 de enero de 2007 y 31 de diciembre de 2007.

A los efectos de dar cumplimiento al principio de publicidad de las subvenciones concedidas, en base al Decreto más arriba referenciado,

RESUELVO:

Acordar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la relación de beneficiarios de las subvenciones concedidas al amparo del Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, por el que se articulan las medidas de Ayudas al empleo, correspondientes al período comprendido entre el 1 de enero de 2007 y 31 de diciembre de 2007, con expresión del número de expediente otorgado a la solicitud, nombre del beneficiario, cuantía de la subvención concedida, según figura en el anexo I de la presente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de marzo de 2008.

El Director de Empleo y Formación,
JESÚS MONREAL ZIA.